

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko martxoaren 12tik 18rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/03/17

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 7koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den talde-sukaldaritzako lan-sektorearen Estatuko hitzarmen kolektiboa luzatzeko akordioa. **4238 xedapena - 3 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/03/15

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Ontzi pneumatikoak eta erdi-zurrinak.** HFP/184/2022 Agindua, martxoaren 8koa, zeinaren bidez arautzen den ontzi pneumatiko eta erdi-zurrunen operadoreen Erregistro bereziaren edukia, operadoreak inskribatzeko prozedura, erabilera, zirkulazio eta horrelakoak edukitzeko erregimena, eta onesten diren abiadura handiko ontzi pneumatiko eta erdi-zurrunen operadoreen egiaztagiriaren eredua eta horien erabilera-baimenaren eredua. **4024 xedapena - 15 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. Hauteskundeak. Posta zerbitzu unibertsala.** PCM/185/2022 Agindua, martxoaren 9koa, zeinaren bidez argitaratzen den Ministroen Kontseiluaren 2022ko martxoaren 1eko Akordioa. Horren bidez, zerbitzu publikoko betebeharrak ezartzen zaizkio 2022an deitzen diren hauteskundeetako posta zerbitzu unibertsalaren emailari. **4025 xedapena - 10 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. Lege ordutegia.** PCM/186/2022 Agindua, martxoaren 11koa, zeinaren bidez argitaratzen den 2022tik 2026ra bitarteko udako ordutegien aldiaren egutegia. **4026 xedapena - 2 or.**

- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. Pentsio-planak eta -funtsak. Aseguru- eta berraseguru-erakundeak.** Akats-zuzenketa, honako errege dekretu honena: 738/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, zeinaren bidez aldatzen diren pentsio-plan eta -funtsen erregelamendua onesten duen otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretua, eta aseguru- eta berraseguru-erakundeen antolamendu, gainbegiratze eta kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretua. **427 xedapena - 1 or.**

2022/03/16

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Premiazko neurriak.** 4/2022 Errege Lege-dekretua, martxoaren 15ekoa, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen diren nekazaritza-sektorea babesteko, lehortea dela-eta. **4136 xedapena - 34 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. Premiazko neurriak.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila otsailaren 22ko 2/2022 Errege Lege-dekretuari buruzko Baliozkotze-akordioa. Errege lege-dekretu horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira langile autonomoak babesteko, enplegua babesteko egiturazko mekanismoetara igarotzeko, eta La Palma uharteko ekonomia eta gizartea leheneratzeko, eta, era berean, luzatu egiten dira zaurgarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko zenbait neurri. **4137 xedapena - 1 or.**
- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Zerga sistema.** HFP/192/2022 Agindua, martxoaren 8koa, zeinaren bidez ezartzen diren Zerga Administrazioaren Estatuko Bulegoari beste Zerga Administrazio batzuek elkarrekiko laguntza-eskaerak bidaltzeko baldintzak eta moduak, Kontseiluaren 2010eko martxoaren 16ko 2010/24/EB Zuzentarauan oinarrituta (zerga, eskubide eta bestelako neurriei dagozkien kredituen kobrantzan elkarri laguntzeari buruzkoa), eskaera horiek behar bezala tramitatu eta horien jarraipena egiteko beharrezko informazioa transmititzeko kanalak eta moduak ezartzen diren, eta halakoak bidaltzearen ondorioz bil daitezkeen funtsak transferitzeko prozedura zehazten den. **4141 xedapena - 7 or.**
- **ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK. KUDEAKETA INFORMATIZATUA.** Ebazpena, 2022ko martxoaren 10ekoa, Autonomia eta Toki Finantziarioko Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez gaitzen den Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko abenduaren 19ko 20/1990 Legean ezarritako tokiko tributuen onura fiskalen bilketan izandako galeren konpentsazioa elektronikoki eskatzeko sistema. **4142 xedapena - 3 or.**

2022/03/18

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Zergak.** HFP/207/2022 Agindua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez onesten diren 2021eko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitorten ereduak; zehazten diren horiek aurkezteko lekua, modua eta epeak; ezartzen diren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortzenaren zirriborroa eskuratzeko, aldatzeko, baiezteko eta aurkezteko prozedurak; zehazten den zein diren baldintza orokorrak eta horiek bide elektronikoz edo telefonikoz aurkezteko prozedura. **4296 xedapena - 79 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/03/14

- **EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.** 25/2022 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, zeinaren bidez onartzen baita 2022ko Urteko Estatistika Programa. **1183 xedapena - 237 or.**

2022/03/17

- **LEHENDAKARITZA.** 1/2022 LEGEA, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa. **1257 xedapena - 60 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/03/16

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2022 Foru Dekretua, martxoaren 8koa. Onespena ematea abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua aldatzeari, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra. **603 xedapena - 3 or.**
- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 12/2022 Foru Dekretua, martxoaren 8koa. Onespena ematea autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioei, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako. **610 xedapena - 877 or.**

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Hutsen zuzenketa, ALHAOren 27 zenbakian, 2022ko martxoaren 4an, argitaratutako 517 iragarkian: 112/2022 Foru Agindua, martxoaren 1ekoa, aldatzen duena Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren ekainaren 1eko 318/2009 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita balore, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio aitortpenaren 189 eredia, bai eta haren barruko orrien ordeztatutako bidez zuzenean irakurtzeko moduko euskarriak erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, 289 eredia onesten duena finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan. **Zuzendua: 2022/517. 586 xedapena - 1 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/03/14

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebatzen da Bizkaiko Gasolina Zerbitzuguneko Hitzarmen Kolektiboaren Aurreraeraginaren Luzapenaren Akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48004095011994). **III-60 xedapena - 2 or.**

2022/03/15

- **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 13/2022 FORU DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontratarien Erregistroa ezabatzen duena. **I-203 xedapena - 3 or.**

2022/03/18

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 491/2022 FORU AGINDUA, martxoaren 16koa. Honen bidez, batetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari dagozkien 2021eko zergaldiko aitortpenak aurkezteko modua arautzen da, eta, bestetik, horien ondoriozko tributuzorria sartzeko epeak ezartzen dira. **I-203 xedapena - 3 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2022/03/14

- **DIPUTATU NAGUSIA.** 1/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen. **1460 xedapena - 42 or.**

2022/03/17

- **DIPUTATU NAGUSIA.** 2/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergarena. **1461 xedapena - 41 or.**

2022/03/18

- **DIPUTATU NAGUSIA.** Akatsen zuzenketa: 2/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergarena. **1627 xedapena - 1 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2022/03/16

- **ZUZENTARAUAK.** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022/431 (EB) Zuzentaraua, 2022ko martxoaren 9koa, zeinaren bidez aldatzen den 2004/37/EE Zuzentaraua, lanean agente kartzinogeno edo mutagenoekin lotutako arriskuen kontrako langileen babesari buruzkoa. **L 88/1 xedapena - 14 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO